



“BAZKARDON (ANDOAIN) A-15 ETA N-1 ERREPIDEEN ARTEKO LOTURA (TOLOSAKO NORANZKOAN) HOBETZEKO TRAZADURA PROIEKTUAREN” (1-NC-36/2022-PT) JENDAURREKO INFORMAZIO IZAPIDEAN AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEN AURREAN EGINDAKO TXOSTEN TEKNIKO EGUNERATUA.

Bide Azpiegituretako Foru Diputatuaren ekainaren 29ko 248-C/2022 Foru Aginduz, BAZKARDON (ANDOAIN) A-15 ETA N-1 ERREPIDEEN ARTEKO LOTURA TOLOSAKO NORANZKOAN HOBETZEKO TRAZADURA PROIEKTUA (1-NC-36/2022-PT) gako(a) jendaurreko informazio eta entzunaldi-izapidera eraman zen, alegazioak eta iradokizunak aurkezte aldera, ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretu Arau-emaileak onartutako Gipuzkoako Errepide eta Bideen testu bategineko 21. artikuluan, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean eta Euskadiko Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean ezarritakoarekin bat etorriz. Agindu hori GAO aldizkarian argitaratu zen, 129. zenbakian, 2022ko uztailaren 7an. Beranduago, uztailaren 18ko 310-C/2022 Foru Aginduaren bidez (GAO aldizkarian argitaratua, 143. zenbakian, uztailaren 28koan), informazio publikorako epea luzatu egin zen.

Epealdi horretan 55 alegazio jaso dira.

1. alegazioa: Adunako Udala
2. alegazioa: Manuel Tellechea Ormaechea eta M^a Jesus Aguirre Echeverria
3. alegazioa: Juan Antonio Gil Villanueva
4. alegazioa: Maria Mercedes Brau Rius
5. alegazioa: Maria Jose Galparsoro Bermudez
6. alegazioa: Santiago Jose Baquero Escudero
7. alegazioa: Elena Arribillaga Becerril
8. alegazioa: Gema Urchueguia Zugasti
9. alegazioa: M^a Lourdes Elicegui Garmendia
10. alegazioa: Iker Jalon Cuartero
11. alegazioa: Jose Maria Jalon Cuartero
12. alegazioa: M^a Carmen Cuartero Laguna
13. alegazioa: M^a Lourdes Elicegui Garmendia
14. alegazioa: Francisco Javier Aguirre Echeverria
15. alegazioa: Olatz Telletxea Agirre eta Amagoia Palacios García
16. alegazioa: Martin Conde Gonzalez
17. alegazioa: Raul Conde Vega
18. alegazioa: M^a Angeles Vega Iraola
19. alegazioa: Fco. Javier Aguirre Goñi
20. alegazioa: Rosalina Vera Jimenez
21. alegazioa: Iñaki Nieto Gaztelu
22. alegazioa: Sorabilla-Errotagain Auzokide Elkarte
23. alegazioa: Manuel Zubeldia Echave
24. alegazioa: SAPA Operaciones SL
25. alegazioa: Maria Aranzazu Sanchez Hernandez
26. alegazioa: PSE-EE Udal Taldea
27. alegazioa: Suministros Eléctricos Mega SL, Talleres Aramburu SA eta Gure Lau Bide
28. alegazioa: Ainhoa Landa San Sebastian
29. alegazioa: Aita Larramendi ikastola
30. alegazioa: Ignacio Aizpurua Muñoz
31. alegazioa: M^a Carmen Manso Perez
32. alegazioa: ENBA Euskal Nekazarien Batasunerako elkarte (M^a Lourdes Elicegui Garmendia)
33. alegazioa: ENBA Euskal Nekazarien Batasunerako elkarte (M^a Lourdes Elicegui Garmendia)

	arazoak ditu, airearen kutsadurarekin lotutakoak, Calonge auzoa udalerritik bereiztearekin lotutakoak. Lurralde Antolamendu Jarraibideetako irizpideak ez ditu aintzat hartzen eta okertu egiten ditu.	
5	N-I errepidearen estaldura Mimendi parean. Baten batek bi zirkulazio-noranzkoak estaltzea eskatzen du. Batzuek bi zirkulazio-noranzkoak izango dituen bide bat eskatzen dute udalerriarekin konexioa egiteko, beste batzuek bide-erabilerarik ez aintzatestea eskatzen dute. Beste batzuek ibilgailuen lotura izan dezala Sapako zonaldean, oinezkoen pasabide baten orde. Beste batzuek eskatzen dute bide bat izanez gero alde batean pantaila edo lur kabailoiak ipin daitezela, etxebizitzetara zarata iristea ekiditeko. Beste batzuek aparkalekuak eta autobus-geralekuak ipintzeko.	2, 3, 6, 7, 8, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 26, 34, 35, 36, 37, 39, 41, 45 eta 55
6	Allurraldeko bihurgunean tunel faltsu bat eraikitzeke eskatzen dute.	26, 39, 41, 45 eta 55
7	Ikastolako bihurguneko lur-erazketak eragina du Allurralde baserriaren larreetan. Aurreikusitako lur-erazketaren ezponda eragin hori murriztuko duen irtenbide bertikalago batekin aldatzea edo, hori ezinezkoa bada, ezponda bere azientarako larre modura aprobetxatu ahal izatea.	9, 13, 22, 26, 32, 33, 39, 41, 45 eta 55
8	Karrika eta Etxeberrieta auzoetan zarata saihesteko pantailak edo lur kabailoiak jartzeko eskatzen dute.	4, 5, 26, 39, 41, 45 eta 55
9	Presagaina baserrian eraginik ez sortzea edo, bestela, hartako inguruabarrak kontuan har daitezela desjabetzea ekonomikoki balioesteko garaian.	22, 23, 26, 39, 41, 45 eta 55
10	Proiektuak Buruntzan Elizaldeandi baserria eraistea dakar. HAPOk "II.b mailako udal intereseko ondasun higiezinak" babesa esleitzen dio eta ustezko zona arkeologikoan dago "eraikinaren harresi-barruko eremuetan". Irtenbidea murrutxo edo harri-lubetekin berriro diseinatzeke eskatzen dute, eragina murriztu eta etxea salbatze aldera.	26, 39, 41, 45, 50 eta 55
11	Cordoba baserria mantentzeko eskatzen da, HAPOren hirigintza-ondarearen katalogoan sartzen dena, horma bat eraikita.	22, 26, 39, 41 eta 55
12	Sorabilla auzoaren aurrean biribilgune baten irtenbidea alegatzen dute, A-15 errepiderako igoseraren txirikordatzea luzatzeko. Proposatzen dute Inquitexeko bidegurutzean biribilgune bat, A-15 errepidera igotzeko bide bat, N-I errepidea hartzeko aukerarik gabekoa, eta Iberdrolaren azpiestazioaren aurrean, Ori ibaiaren bidegurutzean, N-I errepidearen paraleloan luzatuko den beste bide bat, N-I errepidera iritsiko dena Villabonako Ubegun industrialdera irtengo den txirikorda-errei berri bat sortuz. Hori 2011n Aldundiaren proiektuan jasotzen den irtenbide bat da.	22, 26, 39, 41 eta 55
13	Buruntzako zonaldean, A-15 errepidearen bi aldetara eragin akustikoak arintzea pantailak ipiniz.	26, 39, 41, 45 eta 55
14	Txistokiko zubian pantaila akustikoak ipintzeko eskatzen dute.	25, 26, 39, 41 eta 55
15	Bordaberri / Allurralde zonan Caravanas alboan bidearen geometria doitzea 31 Bordaberri HEA-ra (Comac) ibilgailu artikulatuak iristeko	26, 39, 41, 45 eta 55
16	Caravanasetik N-I errepidera sartzeko erreai bat Tolosako noranzkoan industria-trafikoek herrigunerantz ibaia zeharkatu, estaldurara igo eta Bazkardon norabide-	26, 39, 41, 45 eta 55

	aldaketa bat egin behar izatea, horrela zonaldeko egoera atmosferiko eta akustikoa larriagotuz, saihesteko.	
17	Kalitate akustikoa bermatzea Caravanaseko zonan eta Allurralde Berri baserrian.	26, 39, 41 eta 55
18	Sorabillako zonaldean, N-I errepidearen azpiko pasabidearen luzapenean puntu beltz ez-segurua ez sortzeko neurriak.	22, 26, 39, 41 eta 55
19	Sorabillako zonaldean, auzoaren kalitate akustikoa bermatzea pantaila akustikoak ipiniz eta bide-zoru isila erabiliz.	22, 26, 39, 41 eta 55
20	Sorabillako zonaldean, N-I errepideko errei kopurua ez areagotzea, ez baita beharrezkoa, eta N-I errepidearen trazadura ibairantz mugitzea, auzotik urrunduz.	22
21	Ikastolako bihurtzea zuzentzean geratzen diren lurak Udalarari eskualdatzea.	26, 39, 41 eta 55
22	N-I errepidearen gainean oinezko eta txirrinduentzako konexio bat sortzea eskatzen dute, Sorabilla auzoa hiri parkearekin lotzekoa, ibaiaren alboan.	26, 39, 41 eta 55
23	Sorabilla parean, oinezkoentzako konexio berri bat sortzea N-I errepidearen paraleloan, ikastolako zonaldera arte.	26, 39, 41 eta 55
24	Bertako pabilioiak ikusgaitasuna galtzen dute edo kaltetu zuzenak dira. Bere jabetzaren balioespen ekonomikoarekin lotutako alderdiak aipatzen dituzte edo indemnitazioa eskatzen dute obretan zehar garbiketa, kalte eta salmenta-galeragatik eta pabilioien balio-galeragatik.	27 eta 46

47, 49 eta 53 zenbakiko alegazioak ez dira berez alegazio, baizik eta zuzenean Aldundian ere jaso diren alegazioen bidalketa hutsak Andoaingo Udalera. Beraz, horien kasuan ez da aparteko erantzun espezifikorik behar.

ERANTZUNAK

1.- Trazadura, bere osotasunean, ezbaian jartzen da udalerriri dakarzkion kalteak direla medio, eta proiektuaren alternatibari muzin egin eta aldaera eguneratu baten alde egiteko eskatzen da, 2011. urtean proiektatu zenaren antzekoa eta HAPOn jasoa

Proiektuaren lehendabiziko etapetan alternatiben gaineko xehetasuneko azterketa bat egin zen eta, hor, ikuspuntu ugariatik irtenbide ezberdinak aztertu ondoren, horien artean 2011. urtean proiektatu zenaren antzeko bat, irtenbide onena Bizikidetza-II izenekoa zela ondorioztatu zen, hain zuzen, jendaurreko informaziora eramandako dokumentuan garatzen dena. Alternatiben azterketa hori oinarritzat hartuz, eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeko 34. artikularekin bat etorritik, Proiektuaren Hasierako Dokumentua eratu zen, ingurumen-organoari Ingurumen Inpaktuaren Ohiko Ebaluazioaren prozeduraren barruan irismen-dokumentua eratze aldera. 2021eko abenduaren 10ean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumena eta Lan Hidrauliko Departamentuak Ingurumen Inpaktuaren Azterlanaren irismen-dokumentu bat igorri zuen. Bertan adierazten zenez, ingurumenaren ikuspegitik ere, alternatiba egokiena Bizikidetza-II izenekoa zen. Beraz, erabaki hori aldatzeko behar adina argudiorik gabe, alegazioa ezestea proposatzen da.

2.- 2011n proiektatu zenaren eta HAPOn jasotzen denaren antzeko beste edozein aldaeraren aurka agertzen da eta argitaratutako trazaduraren alde agertzen dira

Lehendabiziko zenbakian emandako erantzunarekin koherentzia mantenduz, alegazioa onartu eta informazio publikora eramandako dokumentuan garatutako irtenbidea mantentzea proposatzen da.



3.- Ingurumen-inpaktuaren Azterlana zalantzan jartzen da, izan ere, ingurumen inbentarioan, airearen kalitatearen analisisan, kalitate akustikoaren azterlanean eta ingurumenarekin lotutako beste zenbait alderditan gabeziak ditu. Inpaktuak sorraraz ditzaketen ekintzak ez dira zehaztasunez identifikatzen. Ez-betetze edo azterketa okerreko puntu asko ditu. Soberakinen gordailuen azterlana osagabea da.

Proiektua eta proiektu horri dagokion Ingurumen Inpaktuaren Azterlana informazio publikora eraman dira Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauko Testu Bateginean, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean xedatzen denaren ondorioetarako. Prozedura horretan, eskumeneko ingurumen administrazioak Ebazpen bat emango du, eta bertan arlo horri dagozkion alderdi guztiak ebaluatuko ditu. Gipuzkoako Foru Aldundiko Foru Gobernuaren Kontseiluak trazaduraren Proiektuari emandako onarpenean aipatu Ebazpenaren edukia jasoko da eta gerora idazteko eraikuntza-proiektuak han jasotzen diren zehaztapenak bete beharko ditu.

4.- Proiektuari muzin egin edo bidegabe izateagatik ez onartzeko eskatzen dute. Klima-larrialdia dela medio, ez da errepide gehiago eraiki behar. Kutsadura areagotzen da. Proiektuak irisgarritasun unibertsaleko arazoak ditu, genero-ikuspegitik arazoak ditu, airearen kutsadurarekin lotutakoak, Calonge auzoa udalerritik bereiztearekin lotutakoak. Lurralde Antolamendu Jarraibideetako irizpideak ez ditu aintzat hartzen eta okertu egiten ditu.

Lehendabiziko puntuan emandako erantzunarekin koherentzia mantenduz, alegazioa ezestea proposatzen da. Gainera, gogoratu behar da Euskadiko errepideen hirugarren plan orokorrean (2017-2028 epealdiari dagokiona), maiatzaren 19ko 63/2020 dekretuz onartua, beste zenbait jarduketan artean "A-15 errepidearen eta N-I errepidearen arteko lotura, Bazkardon (Andoain), Tolosako noranzkoan, hobetzea" jasotzen dela.

5.- N-I errepidearen estaldura Mimendi parean.

Alegazioak onartu eta eraikuntza-proiektuan Mimendiko zonan N-I errepidearen estaldura bat gaineratzea proposatzen da, ezaugarri hauekin:

- N-I errepidearen galtzadaren estaldura hego-ipar noranzkoan, albo iragazkorraz mendebalderantz. Luzera ahalik eta handiena izango da espazio aldetik dauden mugen barnean, hain justu, alde batetik, Txistokiko zubiak eta, beste alde batetik, Urnietaranzko A-15 errepidearen bidegurutzak ezarritakoak.
- Gurutze Gorriaren zona Ama Kandida-Illarramendi zonarekin lotzeko bide bat barne hartuko du. Geometriak ahalbidetzen duen heinean, bidea bi noranzkoetan zirkulatzekoa izango da. Oinezkoen pasabide bat eta autobus publikoaren lineako geralekuak gaitzeko espazio bat izango ditu.
- Estalduraren kanpoaldean pantaila akustikoa izango du.
- Hiri iragazkortasuna hobetzeko oinezkoek eta txirrindulariek erabiltzeko goiko pasabide bat diseinatuko da SAPAko zonarekin lotzea ahalbidetzeko diseinu arkitektoniko batekin eta zabalera handi batekin. Beharrezkoa balitz, ibilbidea murrizteko eskailera batzuekin edo igogailu publiko batekin osatuko da.

6.- Allurraldeko bihurgunean tunel faltsu bat eraikitzeke eskatzen dute.

Ez dago halako jarduketa bat justifikatzen duen hirigintza, orografia edo ingurumen aldetiko arrazoirik. Eman daitezkeen arrazoiak Gipuzkoan antzeko ezaugarriak dituzten ehunka puntutan aplika daitezke. Kostu ekonomikoa oso handia izango litzateke eta segurtasunarekin lotutako arazoak ekarriko litzateke: tunel guztiak berez dituztenez gain, erradio hertsiko bihurgune batean kokatuz eratorritako arazo espezifikoak, non tuneleko hormek ikusgaitasun-distantzia mugatu egiten baitute. Gainera,

bihurgunearen kanpoaldean ikastola, kirol-eremua, kiroldegia eta Oria ibaia egonda, ia ez dago espaziorik tuneleko goiko zatitik betelaneko ezpondaren lapradura hartzeko. Horrenbestez, errepidearen funtzionaltasun eta segurtasun arrazoiak direla medio, alegazioa ezestea proposatzen da.

7.- Ikastolako bihurguneko lur-erazketak eragina du Allurralde baserriaren larreetan. Aurreikusitako lur-erazketaren ezponda eragin hori murriztuko duen irtenbide bertikalago batekin aldatzea edo, hori ezinezkoa bada, ezponda bere azendarako larre modura aprobetxatu ahal izatea.

Ezponda lurraren baldintza geologiko eta geoteknikoek baldintzatuta dago eta dagozkion ikerketa teknikoek aholkatzen dutena diseinatuko da. Ezponda bere azendarako larre modura aprobetxatzeari dagokionez, halako lur-erazketaren ondoriozko ezpondak nekez aprobetxa daitezke helburu horrekin. Gainera, errepidearen segurtasunarekin lotutako arrazoiak direla medio, ezin da egon azienda larreetan bazkatzen. Horrenbestez, alegazioa baiestea proposatzen da kontuan izanik ezponda ahalik eta bertikalena izango dela eta ezestea azendarako aprobetxatzeari dagokionez.

8.- Karrika eta Etxeberrieta auzoetan zarata saihesteko pantailak edo lur kabailoak jartzeko eskatzen dute.

Zarata moteltzeko pantailak edo antzeko neurriak dagokion ikerketa akustikoak gomendatzen duen puntuetan ipiniko dira.

9.- Presagaina baserrian eraginik ez sortzea edo, bestela, hartako inguruabarrak kontuan har daitezela desjabetzea ekonomikoki balioesteko garaian.

Eraikuntza-proiektuan ahalegina egingo da behin betiko trazadurarekin Presagaina baserria egun dagoen baldintzetan manten dadin, hura eraistea ekidinez. Hori da helburua eta, bideraezina izatea dakarten baldintzatzaille geometrikoak edo segurtasunarekin lotutako baldintzatzailleak sortu ezean, gauzatu egingo da. Bideraezina izanez gero, desjabetze-prozesua kontuan izango da. Horri dagokionez, alegazioa baiestea proposatzen da.

10.- Proiektuak Buruntzan Elizaldeandi baserria eraztea dakar. Irtenbidea horma edo harri-lubetekin berri diseinatzeko eskatzen dute, eragina murriztu eta etxea salbatze aldera.

Eraikuntza-proiektuan ahalegina egingo da behin betiko trazadurarekin Elizaldeandi baserria eta hartako jabetzak ahalik eta kalte gutxienekin manten daitezen, horiek eraistea ekidinez. Hori da helburua eta, bideraezina izatea dakarten baldintzatzaille geometrikoak edo segurtasunarekin lotutako baldintzatzailleak sortu ezean, gauzatu egingo da. Bideraezina izanez gero, desjabetze-prozesua kontuan izango da. Horri dagokionez, alegazioa baiestea proposatzen da.

11.- Cordoba baserria mantentzeko eskatzen da, HAPOn hirigintza-ondarearen katalogoan sartzen dena, horma bat eraikita.

Eraikuntza-proiektuan ahalegina egingo da behin betiko trazadurarekin Cordoba baserria egun dagoen baldintzetan edo ahalik eta kalte gutxienekin manten dadin, hura eraistea ekidinez. Hori da helburua eta, bideraezina izatea dakarten baldintzatzaille geometrikoak edo segurtasunarekin lotutako baldintzatzailleak sortu ezean, gauzatu egingo da. Bideraezina izanez gero, desjabetze-prozesua kontuan izango da. Horri dagokionez, alegazioa baiestea proposatzen da.

12.- Sorabilla auzoaren aurrean biribilgune baten irtenbidea alegatzen dute, A-15 errepiderako igoeraren txirikordatzea luzatzeko. Proposatzen dute Inquitexeko bidegurutzean biribilgune bat, A-15 errepidera igotzeko bide bat, N-I errepidea hartzeko aukerarik gabekoa, eta Iberdrolaren azpiestazioaren aurrean, Oria ibaiaren bidegurutzean, N-I errepidearen paraleloan luzatuko den beste



bide bat, N-I errepidera iritsiko dena Villabonako Ubegun industrialdera irtengo den txirikorda-errei berri bat sortuz. Hori 2011n Aldundiaren proiektuan jasotzen den irtenbide bat da.

Alegazioa baiestea proposatzen da, betiere, proposatzen den irtenbideak egun indarrean diren irizpide eta araudi tekniko eta ingurumenekoak betetzen baditu. Haatik, kontuan izanik proiektuaren helburua A-15 eta N-I errepideek Bazkardo inguruan bat egitearen arazoa konpontzea dela, Sorabillako ingurunearen aldaketa independentea dela, funtzionalki zein egikaritzeari begira, eta N-I errepiderako sarbidea Villabonarantz eramateko edozein alternatibak kostu ekonomiko handia izango duela, izapidean den proiektu honetan zonan jarduketarik ez gauzatzea, Sorabillan egun dagoen lotura mantentzea eta haren aldaketa idazteke dagoen eta aurreragoko faseetan egikaritzeko aparteko beste proiektu batekin jorratzea proposatzen da.

13.- Buruntzako zonaldean, A-15 errepidearen bi aldetara eragin akustikoak arintzea pantailak ipiniz.

Zarata moteltzeko pantailak edo antzeko neurriak dagokion ikerketa akustikoak gomendatzen duen puntuetan ipiniko dira.

14.- Txistokiko zubian pantaila akustikoak ipintzeko eskatzen dute.

Zubia berritu egin behar denez hego-ipar noranzkoan hirugarren erreia bat sortzeko, ertzean pantaila akustikoak ipiniko dira ahal denean. Horri dagokionez, alegazioa baiestea proposatzen da.

15.- Bordaberri / Allurralde zonan Caravanas alboan biderearen geometria doitzea 31 Bordaberri HEA-ra (Comac) ibilgailu artikulatuak iristeko.

Trazadura, hark zerbitzu ematen dien hiri eremuen eta industria-eremuen funtzionamendu egokia ahalbidetzeko modukoa izango da. Horri dagokionez, alegazioa baiestea proposatzen da.

16.- Caravanasetik N-I errepidera sartzeko erreia bat Tolosako noranzkoan industria-trafikoek herrigunerantz ibaia zeharkatu, estaldurara igo eta Bazkardon norabide-aldaketa bat egin behar izatea, horrela zonaldeko egoera atmosferiko eta akustikoa larriagotuz, saihesteko.

N-I errepidera, Tolosako noranzkoan, zuzenean sartzeko erreia ez da onargarria, ez geometrikoki ez funtzionalki. Salatzen den arazoa egiazkoa da, izan ere, informazio publikora eramandako diseinuarekin industria-trafikoek ibaia zeharkatu beharko lukete herrigunerantz, estaldura igo eta Bazkardon norabide-aldaketa bat egin beharko lukete, edo bestela herrigunea zeharkatu, bi irtenbideak ere desiratzen ez direnak. Hori ekiditeko, eraikuntza-proiektuan ahalegina egingo da Sapa industrialdearekin lotzeko bide bat, bi norabidekoa, diseinatzeko xedez. Bordaberriko industria-trafikoek Sapako zonako sarrerak eta irteerak erabiliko dituzte. Horrekin, gainera, Sapa-Calonge eremua herrigunearekin zuzenean lotzeko espaloidun tokiko bide bat egotea lortzen da, N-I errepideko adarrak edo loturak erabili beharrik gabe. Zentzu horretan, alegazioa baiestea proposatzen da.

17.- Kalitate akustikoa bermatzea Caravanaseko zonan eta Allurralde Berri baserrian.

Zarata moteltzeko pantailak edo antzeko neurriak dagokion ikerketa akustikoak gomendatzen duen puntuetan ipiniko dira.

18.- Sorabillako zonaldean, N-I errepidearen azpiko pasabidearen luzapenean puntu beltz ez-segurua ez sortzeko neurriak.

Egungo pasabidearen luzera laburra da, erreia bat edo bi hartzeko beharrezkoa den luzera. Aldaketa horrek ez ditu, inolaz ere, aldatzen 15 metrotik gorako zabalera eta ia 6 metroko altuera duen pasabide baten segurtasun-baldintzak.

19.- Sorabillako zonaldean, auzoaren kalitate akustikoa bermatzea pantaila akustikoak ipiniz eta bidezoruz isila erabiliz.

Informazio publikora eramandako proiektuan dagoeneko eremu horretan pantailak ipintzea aurreikusten da. Edozein kasutan eta azkenik eraikuntza-proiektuan egiten diren diseinu aldetiko aldaketekin, zarata moteltzeko pantailak edo antzeko neurriak dagokion ikerketa akustikoak gomendatzen edo eskatzen duen puntuetan ipiniko dira. Auzoko hirigunea hurbil dagoela kontuan izanik, arreta bereziz jokatuko da eragin akustikoa arintzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeari begira. Horri dagokionez, alegazioa baiestea proposatzen da.

20.- Sorabillako zonaldean, N-I errepideko errei kopurua ez areagotzea, ez baita beharrezkoa, eta N-I errepidearen trazadura ibairantz mugitzea, auzotik urrunduz.

Ezinbestekoa da errei kopurua areagotzea. N-I errepidearen trazadura mugitzea ezinezkoa da, inguruan dauden baldintzatzaile ugariak direla medio. Alegazioa ezestea proposatzen da.

21.- Ikastolako bihurtzea zuzentzean geratzen diren lurraldeak Udalarari eskualdatzea.

Proiektu honetatik aparteko erabaki bat da. Azkenik libre geratzen diren lurraldeak nola geratzen diren ikusita, aukera hori aztertuko da.

22.- N-I errepidearen gainean oinezko eta txirrinduentzako konexio bat sortzea eskatzen dute, Sorabilla auzoa hiri parkearekin lotzeko, ibaiaren alboan.

Proiektu honen eduki, xede edo eraginez aparteko eskaera bat da. Hiri konexioko jarduketak bat da. N-I errepidearen gainean pasabide bat eraikiko balitz, erabaki beharko litzateke ibaiaren ezkerreko ertzera jaistea eta handik ikastolako eremura arte N-I errepidearen paseo paralelo batekin jarraitzea, edo Oria ibaia gainetik zeharkatzea eskuinaldeko ertzeko hiri parkera iristeko, edo bi gauzak. Erabaki horrek bere ondorioak ditu udal antolamenduan eta ibaiaren iragaite-eremuan bere eraginak ditu. Eskaera onartuko balitz, aparte idazteko beste proiektu batekin jorra daiteke.

23.- Sorabilla parean, oinezkoentzako konexio berri bat sortzea N-I errepidearen paraleloan, ikastolako zonaldera arte.

Aurrekoarekin lotutako eskaera bat da. Gainera, N-I errepidearen eta ibaiaren artean, ikastolako iritsieran, dagoen espazio urriak baldintzatuta dago. Gaur egun, oinezkoen pasabideak sortutako xendra estu bat dago. Xehetasunezko azterketa bat eta Uraren Euskal Agentziaren (URA) eta Espainiako Iparraldeko Ur-konfederazioaren konplizitatea eskatuko luke. Erabakia aurreko eskaeran hartzen denaren baitan dago.

24.- Bertako pabilioiak ikusgaitasuna galtzen dute edo kaltetu zuzenak dira. Bere jabetzaren balioespen ekonomikoarekin lotutako alderdiak aipatzen dituzte edo indemnitazioa eskatzen dute obretan zehar garbiketa, kalte eta salmenta-galeragatik eta pabilioien balio-galeragatik.

Etorkizunean gauzatzeko desjabetze-prozesuan kontuan izateko alderdi bat da, baina proiektu honen informazio publikoa ez da ondorio horietarako egin.



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **JAKI6dea27dc-bb4f-4ee7-b6e2-d54260bbbc34**

Dokumentu honen osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan: <https://egoitza.gipuzkoa.eus/eks>

Compruebe la integridad y firma de este documento, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/csv>



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **SIER7527f11f-fde2-4934-a583-848cd9c5c3db**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910>